

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### LURRALDE OREKAREN SAILA

#### **33/2020 Foru Agindua, otsailaren 17koa, baimentzen duena Maycar Ibisate Osaba andrearen behin-behineko izendapena Erriberagoitiko Udaleko idazkari lanposturako, titularra itzuli arte**

Erriberagoitiko Udalak atal honi jakinarazi dio behin-behineko izendapen horren beharra daukala, esandako aldian Luisa Altonaga Goiriena udal idazkaria ordezkatzeko, aldi baterako lan ezintasun egoeran baitago.

Hortaz, proposatzen du Maycar Ibisate Osaba udal horretako funtzionario andrearen behin-behineko izendapena lanpostu horretako titularra itzuli arte, behar bezalako prestakuntza teknikoa baitauka.

Estaturako gaikuntza duten toki administrazioeko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak 52.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

Kontuan hartu da Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunaren abenduaren 27ko 27/2013 Legeak 25. artikuluan xedatutakoa. Lege horrek Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea aldatzen du, 92.bis artikulua berria sartuz, non zehazten baita toki korporazioetan behin-behineko langileak izendatzeko aginpidetza eremua.

128/2018 Errege Dekretu horren hirugarren xedapen gehigarrian arautua betez, eta Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren 52/1992 Foru Arauaren 40. artikuluan jasotzen diren eskudantzien ondorioz, eta nire eskumenekoak diren ahalak baliatuz, hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Maycar Ibisate Osaba aldi baterako izendatzea, Erriberagoitiko Udaleko idazkari lanpostuari dagozkion eginkizunetan jardun dezan, haren titularra ez dagoen bitartean.

Bigarrena. Foru agindu hau jakinaraztea Erriberagoitiko Udalari eta Eusko Jaurlaritzako Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari, eta agintzea ALHAOn argitara dadila.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko otsailaren 17a

*Lurralde Orekaren Saileko foru diputatua*  
**IRMA BASTERRA UGARRIZA**

*Lurralde Orekaren zuzendaria*  
**JESUS MARÍA GUINEA DÍAZ DE OTALORA**